# Karrera Amaierako Proiektuak eta Gradu Amaierako Lanak gestionatzeko eskuliburua

## Ikaslearen profila

2014ko ekaina

Gestio Akademikoaren Atala
Graduko Ikasketen Zerbitzua
Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza

# IKASLEAREN PROFILA

UPV/EHUn matrikulatutako ikasle guztiek, GAURren sartzen direnean, “Karrera Amaierako Proiektuak – Gradu Amaierako Lana” programara sartzeko aukera dute. Programako datuetara sar daitezke ikastegiko arduradunak parametroetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte; baldintzok bete ezean, mezu bat agertuko zaie.




**1. irudia**

“Sarrera ikastegietarako”, “Ikastegiko datuak” eta “Ikastegiko araudia” aukerak dira ikastegiko arduradunak parametroetan ezarritakoak.

Ikasleari curriculumarekin lotutako datuak txertatzeko eta/edo eguneratzeko aukera ematen zaio eta curriculum hori “Proiektuen/Lanen eskaintza" aukerako "Izena emanak/Esleipena" eremuan bistaratuko da. Ikasleak izena eman badu enpresaren batek eskainitako KAPen/GRALen batean, gerora, enpresa horrek ikaslearen curriculumaren datuak eskuragarri izango ditu.

## 1.1. Proposamenak

Menuaren aukera honetan ikasleek KAPerako/GRALerako proposamenak txertatu ahal izango dituzte sisteman, ikastegiko arduradunak hori egiteko aukera markatu badu.




**2. irudia**

KAPerako/GRALerako proposamenak zuzendariak baliozkotu beharko ditu, proposamenean horrela jasota ageri bada, edo, bestela, ikastegiko arduradunak horretarako esleitu duen pertsonak.

3. irudian proposamen baten xehetasunak ikus daitezke. Izartxoa (*) duten eremuak nahitaez bete beharrekoak dira.




**3. irudia**

Proposamen bat txertatzerakoan, ikastegiko arduradunak proposamena berrikusiko duen pertsonarik izendatu duen egiaztatzen da. Halakorik egin ez badu, proposamen bat bukatutzat emateko "Zuzendaria" izeneko eremua bete behar da.




4. irudia

**PROPOSAMENA AMAITUTAKOAN**, proposamen hori baliozkotzeke geratuko da, baina aldaketak egiteko aukerarik gabe, eta, batetik, proposatutako zuzendariak edo, bestetik, ikastegiko arduradunak izendatutako pertsonak, proposamen bat izango du baliozkotzeke. Proposamen hori ebaluatzen denean, ikasleari e-mail bat bidaliko zaio berrikuspenaren emaitzaren berri emateko.

Inprimatu botoia sakatutakoan, egindako proposamenaren PDF bat sortuko da.

Berrikuspenaren emaitza ezagututakoan, ikasleak proposamena berriro aldatzeko aukera izango du, baldin eta berrikuspenaren emaitza "Aldatu beharrekoa" bada.

## 1.2. Proiektuen/lanen hautapena

Menuaren aukera honetan ikasleak publikoak diren KAPen/GRALen zerrenda ikusi eta horietako batean edo batzuetan izena eman ahal izango du, ikastegiak ezarritako parametroen arabera.
KAPak/GRALak aukeratzerakoan honako filtro hauek erabil daitezke:

- Mota
- Indibiduala /Taldean
- Eskainitako titulazioa
- Espezialitatea (ikastegiak halakorik gestionatzen badu)




**5. irudia**

Ezkerreko aldeko (››) botoian sakatuz gero, eskainitako proiektuaren datuetara sar daiteke, 6. irudian ikusten den bezala.



## Proiektuaren/lanaren xehetasunak

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren/lanaren proposamena:** | Ez |
| **Indibiduala / Taldean:** | Indibiduala |
| **Hizkuntza:** | Zehaztugabea |
| **Titulazioa:** | Ingeniaritza Mekanikoko Gradua |
| **Espezialitatea:** | Mecánica |
| **Saila:** | |
| **Enpresa:** | |
| **Unitatea:** | |
| **Azalpena:** | |
| **Lantaldea:** | |
| **Egin beharreko lanak:** | Realizar el proyecto |
| **Helburuak:** | |
| **Laneko materiala:** | |
| **Ordut.:** | |
| **Orduak guztira:** | 300 |
| **Iraupena:** | 2014/01/13-2014/07/29 |
| **Probintzia:** | |
| **HerriaU:** | |
| **Telefonoa:** | |
| **Laguntza-poltsaren guztizkoa:** | |
| **Laguntza-poltsa (euroak/hilabetea):** | |
| **Eskakizunak:** | |
| **Isilpekoa:** | Ez |
| **Defentsa-eskaeraren data:** | |

*Proiektuaren/lanaren zuzendaritzarekin lotutako datuak*

| | |
|---|---|
| **Zuzendaria:** | ABASOLO BILBAO, MIKEL |
| **Zuzendariaren helb. el.:** | |
| **Zuzendarikidea:** | |
| **Zuzendarikidearen helb. el.:** | |

Eskatu defentsa | Atzera

**6. irudia**




**7. irudia**

Eskuineko aldeko ikonoan sakatuz gero, ikastegiak eskainitako KAP/GRAL guztien zerrenda eskuratu daiteke.

Ikasleak berak nahi dituen KAPak/GRALak aukeratu beharko ditu eta horietako bakoitzaren lehentasuna zehaztu. Ikastegiak parametroetan ezarri dituen beste aukeratu ahal izango ditu. Bukatzeko, "Gorde" botoia sakatu beharko du.

Argitaratzeko epea zabalik dagoen artean, ikasleak bere aukera aldatu ahal izango du.

Ondoren adjudikazioa egingo da ikastegiak ezarritako parametroen arabera, ikasleak ezarritako lehentasunak kontuan hartuta.

Kontsultatu uneko izen-ematea botoia sakatuta ikasleak egin duen izen emateari buruzko datuak kontsultatu ahal izango ditu.

## 1.3. Adjudikazioak

Menuaren aukera honetan ikasleak adjudikatu zaion KAPa/GRALa ikusi ahal izango du.



## Adjudikazioak

*Adjudikatutako proiektuen/lanen zerrenda*

| | Titulazioa | Espezialitatea | Proiektuaren/lanaren izenburua | Zuzendaria |
|---|---|---|---|---|
| >> | Ingeniaritza Mekanikoko Gradua | Mecánica | Proyecto 2 para preinscripción | ABASOLO BILBAO, MIKEL |

Defentsa-eskaeren kontsulta

8. irudia

Eta ›› botoia sakatuta, haren xehetasunak ikusi ahal izango ditu.



## Proiektuaren/lanaren xehetasunak

| | |
|---|---|
| **Proiektuaren/lanaren proposamena:** | Ez |
| **Indibiduala / Taldean:** | Indibiduala |
| **Hizkuntza:** | Zehaztugabea |
| **Titulazioa:** | Ingeniaritza Mekanikoko Gradua |
| **Espezialitatea:** | Mecánica |
| **Saila:** | |
| **Enpresa:** | |
| **Unitatea:** | |
| **Azalpena:** | |
| **Lantaldea:** | |
| **Egin beharreko lanak:** | Realizar el proyecto |
| **Helburuak:** | |
| **Laneko materiala:** | |
| **Ordut.:** | |
| **Orduak guztira:** | 300 |
| **Iraupena:** | 2014/01/13-2014/07/29 |
| **Probintzia:** | |
| **HerriaU:** | |
| **Telefonoa:** | |
| **Laguntza-poltsaren guztizkoa:** | |
| **Laguntza-poltsa (euroak/hilabetea):** | |
| **Eskakizunak:** | |
| **Isilpekoa:** | Ez |
| **Defentsa-eskaeraren data:** | |

*Proiektuaren/lanaren zuzendaritzarekin lotutako datuak*

| | |
|---|---|
| **Zuzendaria:** | ABASOLO BILBAO, MIKEL |
| **Zuzendariaren helb. el.:** | |
| **Zuzendarikidea:** | |
| **Zuzendarikidearen helb. el.:** | |

Eskatu defentsa | Atzera

9. irudia

## 1.4. Defentsa eskatzea

KAPa/GRALa bukatuta dagoenean, ikasleak haren **DEFENTSA ESKATU** ahal izango du.

- Prozesu horretan, ikasleak KAP/GRAL irakasgaian matrikula eginda duen egiaztatzen du aplikazioak. Matrikula eginda badauka, aurrera jarraitu ahal izango du; bestela, irakasgaian matrikula egin beharko bere GAURreko profilean (10. irudia).



10. irudia

- Kontuan izan behar da izapide hau ikasturte akademikorako egindako matrikularen aldaketa bat dela; hortaz, ikasleak ez badu matrikularik egin ikasturte horretan, KAParen/GRALaren matrikula egin beharko du ikastegiko idazkaritzan.

Ikasleak KAP/GRAL irakasgaian matrikula eginda duela egiaztatutakoan, ikasle horrek defentsa eskatu ahal izango du. Proiektua defendatzeko zein deialdi eta hizkuntza erabiliko duen aukeratu beharko du (horretarako, ikastegiko arduradunak ikasturte bakoitzerako aplikazioan jarritako deialdien zerrenda erabiliko da).




**11. irudia**

- Garrantzitsua da deialdietako datuak ondo begiratzea, defentsa data horietan egin beharko baita (ezin dira egunak aldatu).

"Eskatu defentsa" botoia sakatzerakoan, KAPeko/GRALeko zuzendariari berrikusteke dagoen defentsa eskaera bat erregistratuta geratuko zaio. Zuzendariak defentsaren aurretik eman beharreko txostena emandakoan, ikasleak posta elektroniko bat jasoko du berrikuspenaren emaitzaren berri emanez.

Aukeratutako deialdia bertan behera geratuz gero, beste defentsa eskaera bat egin behar da zabalik dauden deialdietakoren batean.

Defentsa-eskaeraren kontsulta botoia sakatuta, egindako eskaerei buruzko informazioa biltzen duen PDF bat eskura daiteke.




12. irudia

## 1.5. Tutoretzak/Mintegiak

Programa honetan adjudikazio bakoitzari dagozkion tutoretzak (ikasleari erakutsi beharrekoak) ikus daitezke.

Aukera hau sakatzerakoan, lehenengo eta behin, adjudikazioen zerrenda ikusten da.




13. irudia

 botoia sakatzerakoan ikasleari erakutsi beharreko tutoretzen zerrenda ikusten da (14. irudia).




14. irudia

## 1.6. Albisteak

Menuaren aukera honetan ikastegiko arduradunak sisteman jarritako albisteak edo abisuak ikus daitezke (ikasleak ikusteko modukoak direnak).




15. irudia

## 1.7. Inkestak

Programa honetan adjudikatutako KAPen/GRALen zerrenda ikusi ahal izango du ikasleak. Proiektu edo lan bakoitzeko esteka bat agertuko da eta bertatik proiektuaren txostena osatu ahal izango da. Txosten hau bukatutzat emateko, AMAITU botoia sakatu behar da.




16. irudia

Txostena amaituta ez dagoen artean  ikonoa agertuko da. Txostena bukatutakoan, aldiz,  ikonoa agertuko da eta hortik aurrera ez da txostenean aldaketarik egiteko aukerarik egongo.